# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3616

*1205/2013 EBAZPENA, uztailaren 16koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Maria Teresa Garmendia Tolosa andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Emergentzietako zuzendari gerentearen kargutik kentzen duena.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 23ko 554/2003 Ebazpenaren bidez (otsailaren 4ko EHAA, 23. zenbakia), Maria Teresa Garmendia Tolosa andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Emergentzietako zuzendari gerente izendatu zuten.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Maria Teresa Garmendia Tolosa andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Emergentzietako zuzendari gerentearen kargutik kentzea, egindako zerbitzuengatik eskerrak emanda.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2013ko uztailaren 16tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri interesdunari, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Emergentziei, Donostia Unibertsitate Ospitaleari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora, jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 16a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.